


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Badiola Gabilondo Itsumendi

*Bergara,
Gipuzkoa
(1926-1998)*

Aurkibidea



Biografia



1926ko martxoaren 2an jaio zen Elosuko Bentoste baserrian eta bertan bizi izan zen. Azken urteetan Azkoitian, kalean, bizi izan zen. Urte askoan ikazkin lanean ibili zen Elosu inguruko basoetan. Beronek egin zuen azken txondorra 1974an Bergarako plazan; zeregin haietan bere lehengusu Felix Badiolak lagundu zion.

Zintak

BER-065

- **Proiektua:** Bergarako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1995-05-03
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Bergarako Udala

BER-066

- **Proiektua:** Bergarako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1985-04-18
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Bergarako Udala

BER-067

- **Proiektua:** Bergarako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1985-04-18
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Bergarako Udala

BER-088

- **Proiektua:** Karobiak, txondorrak eta elurzuloak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Data:** 1993-11-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog

- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Bergarako Udala

BER-089

- **Proiektua:** Karobiak, txondorrek eta elurzuloak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Data:** 1993-11-01
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea:** Bergarako Udala

Pasarteak

1. Ikazkintzaren nondik-norakoak, lehenengo urratsak labur-labur

- **Erref:** BER-088/002
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:00:37. **Bukatu:** 00:03:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Ikazkintza nolakoa den. Lehenik, txabola egiten da eta ondoren txondor-zuloak egiten dira (komeni direnak). Ondoren, egurra bota behar da (pago-txara); "langintzia" esaten zioten horri. Egurraren prestaketa. "Triskia", egurra apaintzeari esaten zaio. Lexikoa.

Transkripzioa

- Ta nola eitten dan ikezgintzia? Lehenengo izeten da basua. Basuan erdi inguruan eitten da txabolia. Txabolia eitten da. Ta gero eitten da txendor-zuluek; lau, bost... zenbat komeni dien. Bueno, ba, hori eindakuen hasten da egurra botatzen, hasten zan. Oin motozerriakian eingo dabe baiña orduan, ba, gu aizkorekin ibiltten giñan, aizkorekin. Lehenengo eitten da egurra bota. Lanteixa esaten jako hari. Lau-bost txendor...

- Zeuek holan esaten dotsazue?

- Bai.

- Lanteixa?

- Lanteixa. Lau-bost txendor, hola izeten zien Elusun, hemen jenerala txarakua, pago-txaria izeten zan, pago-txaria.

- Zer da txaria?

- Pagan... Bueno, hori berez etorritakua izeten da. Pago-txaria, berez etorritakua, ez da... aldatutakua ez da izeten. Aldatutakua izeten da, ba, pagua, baiña hori berez etorritakua. Ta [hortara ...], ba, orduen hasten zan, lehenengo bota dana. Hori izeten zien, ba, berrogeta hamar-hirurogei tonelada. Hori aizkoriakin botatzen zan [behintzat]. Harek botatakuen, triskia esaten jako, hurrengo apainketia. Harek apaindu, triskia esaten jako hari. Ta haura eindakuen, bueno, triska hori eitten zan, hola, hiru bat metro inguruan ebaitzen zan egurra. Hiru metrotik hiru metrora, hiru metrora, bi ta erdi... hola.

- Luzeran hori?
- Luzeran.
- Hori da triskia eittia?
- Triskia. Ta gero, haura einddakuen, txendor-zulotara batzia izeten zan. Ta hemen, jeneralien, eitten giñuan, ba, auzotarrak, egun baten [haren] batzia, hori lepoka ibiltzen zan. Kargatzaillia izeten zan bat; bueno, sei lagun edo zazpi bazien, bi kargatzaillie bizkarrien.
- Zelan esaten jakon horri?
- Egur-batzia. Egur-batzia esaten jakon horri.
- Eta lepuan eruatia?
- Lepuan. Lepuan egur-batzia. E? Ta bi izeten zien lepuan ipintteko, bizkarrian, ya... zahar samarrenak harek ta gazte samarrak bizkarrian eruten. Ta gero jakin bihar izeten zan, bi bizkarrian, alde bateti ta besteti eruten, bi aldetati. Ondo hezitta egon bihar hortarako. Ta gero txendor-zulua alde batetik, ezkerretik baldin baeuan, buruz-geiñetik bota bihar izeten zan, hara, zuzen. Ta orduan batzen zien egurrak, osea, ba, lehen esan dotena, ba, honenbeste tonelada. Bost txendor bazien bost, bestela sei, iguel da. Bueno, haura einddakuen egur txikitzia egoten zan. Harek metroti metrora ingurura ebai danak, ta gero eitten zan alde bateti bestera, txendor-zulo, lehen esan doun buelta hortan, danak illeran ipiñi ta hiru bat metro ingurura arte.

2. Txondorra nola betetzen da

- **Erref:** BER-088/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:52. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Hurrengo urratsa txondorra kargatzea izaten zen. Erabiltzen ziren egur-tamaina desberdinak.

Transkripzioa

- Gero hasten zan, orduen, haura eindakuen, txendorra kargatzia, txendorra kargatzia. Horrek etxien eitten zien. Ta hori txendorroi izeten zan hola; zela esango dotzut? Hiru punta. Lehen esan doun bezela, metrotik ingurura bigarren illeria, lehenengotik lodienak ipintzen zien barrenian. Gero [beherutz] mehetxuauak ta gorao, puntara mehiauak. Ta gorao...
- Izen diferentia zeuken horrek? Behian ipintzen zienak edo bestiak eta bestiak...?
- Bai. Ya... haundiñak, lodiñak behian ipintzen zien. Gero, erdikuek pixkat mehetxuauak ta guenien... Ta gero etaratzen zan... hori, txendorra kargatzen gabitz, e? Txendor kargatzia esaten jakon, txendor kargatzia. Gero, hori eindakuen, bueno, hortarako, barreneti hasi ta gueneraiño lau kuadroko ezpalekin eitten zan, gero zuluua goitti behera egon dain.
- Zulo horrek ze izen zeukan?
- Zulo horrek, ba... zela esaten jakuan txendorran erdiko zerari?
- Sutokixa edo esaten jakon?
- Bai. Su-lekua.
- Su-lekua.
- Su-lekua.
- Bai, horixe.
- Bueno, haura einda dao. Oin, zera, kargatzia einda dao txendorra.

3. Txondorra nola tapatzen da

- **Erref:** BER-088/004
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:05:17. **Bukatu:** 00:05:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorra kargatu ondoren, hurrengo urratsa tapatzea izaten zen. Orbela; "idurixa".

Transkripzioa

- Gero hasten zan tapatzia. Gero orbela batu bihar izeten eban.
- Zer da orbela?
- Ostrua.
- Ostro iharra.
- Ostro iharra, orrixa. Haura pilla haundixa. Oseake, lodixan ipiñiko zan, ba, hogei bat zentimetro, buelta daniel txendorrari. Haura. Ta gero, haura eindakuen, idurixa. Idurixa, hori [izeten] da lur beltza, lehenaoko eindakua onena, lehen txendorra eindako lekuan onena. [...]
- Han egoten zan...
- Haura egon ezian, ba, barrixakin eitten zan, baiña hori txarraua zan.

4. Txondorra estali eta su ematen zaio

- **Erref:** BER-088/005
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Lur-beltza. Txondorra nola tapatzen zuten. "Zoixa". Hostoekin ondo tapatu. Hurrengo egunean sua ematen zitzaion. Egosten hasi eta horren inguruko kontuak. Lexikoa. "Illintxia".

Transkripzioa

- Ta zelan eitten zan barrixa?
- Lurra handik batu inguru darian.
- Ta zohixa hartu.
- Ta poliki-poliki-poliki-poliki goeneraño ipintzen zan ya dana tapauta. Gero puntan zohixakin eitten zan bueltia. Lehenengo muturra.
- Zohixa zer da?
- Zohixa, zerakin, atxurrakin etara ta geiñeko, lurran geiñeko zera.
- Hori bedarrakin etarutzen da zohixa.
- Bedarrakin etarutzen dana. Haura bueltan. Bueno, hori ya ein dou ta hurrengo egunien sutu eitten zan txondorra. Egun baten bi, bestien bat... ta bueno, ya akabau arte. Ta gero, poliki-poliki, e, poliki-poliki egosten biher izeten eben, ba, hamalau bat egun edo hola, egosten. Egosten zela da? Hari igerten jakon, ba, txondorra lehenengo iketza eitten hasten da puntati. Ez da beheti hasten iketza eitten. Barreneraño zera, sua egon arren, iketza egosten hasten da, txondorra, goiko puntati. Puntati behera. Poliki-poliki juten da egositez-egositez-egositez-egositez. Gero barrenera allegatzen darian, gero buelta dana hartuta daukenian, hori [txendorzalie] laster [igerten jao] ta "hemendikaldeko puntan gutxitxua falta jok", azpittik zulo bat eitten jako, zulo txiki bat, inddar hara hartu deixen.
- Zerekin eitten zan zulu?
- Atzamarrakin. Holakotxe zulo txiki bat. Gero hartzen eban indarra hara. Oin, txarrena da haizia. Haizia zein aldetati jotzen daben igarri ein bihar jao txendorgilliek, bestela geratuko da alde bateti zihero erreta zera, txondorra, ta bestekaldeti illinttia.
- Bestekaldetik ze?
- Bestekaldeti illinttia, ondo egosteke.
- Lentxia esan dozu?
- Illinttia, haura iketza eittekia, erdi beztutako egurra. Bai.

5. Txondorra garbitu eta ikatza atera

- **Erref:** BER-088/006
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erohera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

"Txendor-garbitzia". Orbelak eta lurra zatika guztiz kendu. Orbelak bertan erre behar izaten dira. Poliki-poliki txondorrek berotasuna galtzen du. Ikatza epelduta dagoenean, zakuetan sartzen zen.

Transkripzioa

- Ta gero hori eitten danien, hurrengo izeten da txendor garbitzia. Txendorra garbittu ein bihar izeten da, osea, lehen esan doun bezela, zera, orbelak ipini dittuu ba lehen? Hari lehenengo goitti behera hasi, ezta? Ta lehenengo kentzen jako alderdi bateti lurra, dana behera. Berua egoten da orduan, e! Berua, baiña gorixa. Ta han bertan erre ein bihar izeten dabe zerak, orbelak, han bertan. Bertan, alderdi bat. Lehenengo, hori ofiziorik txarrena, berotzen... berua egoten da ziharo ta gero harek erretzen dianien atzera beheti gora lurra botatzen jako emendau dain. Lurrak atzera emendau eitten dau; orbela kendutakuan emendau eitten dau. Gero beste alderdixa. Hari beste hainbeste, bestiari ere bai. Dana. Ta orduan, poliki-poliki hartu ta txendorra aplakau eitten da. Nola lurra sartzen jakon barrura, ya aplakauta dao. Gero laga beste egun bet aplakau dain ta hurrengo egunien txendorra etaratzia izeten da. Etara burdiñezko zerakin ta gero eskuariakin poliki-poliki buelta danien, haura txendorra poliki-poliki [...]. Baiña han deskuidatzen bazara, punta baten hartu ta bestekalderaiño erre eitten da etaratako haura. Atenziño haundixa, baitta gabaz be! Ni askotan ibilitta nao gabaz be. Ta gero [orduan eitten da], ba, zakutan sartzia; ya tenplauta daonien iketza, ba, zakutan sartu.

6. Ikatza saltzera erematen zen

- **Erref:** BER-088/007
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:10:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Azkenengo urratsa, ikatza saltzea. Gurdiarekin erematen zuten herrira.

Transkripzioa

- Ta gero, guk eitten giñuan, ba, batian Plazentziara saltzen giñuan, burdikadatan, hemendi, Pol-poleti, hemen Irukurtzeta alderdi hontati batian Plaentzira, bestian Bergarara... burdika. Ta hori izeten zan iketzan erremate dana.
- Errematia...

7. Ikatz-tokiak Elosun

- **Erref:** BER-088/008
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:10:41. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatz-tokiak. Elosun txondor asko izaten ziren.

8. Ikatz-tokia zelakoa izan behar da

- **Erref:** BER-088/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorra egiteko tokia zelakoa izan behar den.

Transkripzioa

- Ta txondorra eittteko orduan leku espeziala edo topatzen zan?
- Bai, bai. Lau-laua bihar!
- Ein ein bihar..
- Lau-lau. Ein ein bihar.
- Ein ein bihar txendor-zulua.
- Osea, txendor-zulua izeten zan... Zenbat? Hamar metro batera ta hamar bestera, biribila, biribila.
- Oseake, lauatarik ez bazeuan ein ein bihar zan.
- Oin, jeneralien, aurreti, [...], aurreti einddako txendor-zuluak egoten zien [dana]. Jeneralien, ba, aurreti einddako txendor-zulua, ezta? Baiña han ez baeuan txendor-zulua eindda, atxurrakin...
- Ta txendor-zulua zer egoten zan, zeuen lurretan ala...?
- Bai, bai.
- Noberan lurra zan?
- Bai. Oseake... basuan... basuan lurrak.
- Aiuntamentuanak eta holan ez...?
- Ez, ez, ez. Hemen Elusun aiuntamentuko lurrik ez dao.
- Noberan terrenuak, ezta?
- Noberan terrenuak.

9. Txondorra erretzeko garairik egokiena

- **Erref:** BER-088/012
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Neguan txondorra prestatu eta apiril inguruan erretzen zen.

Transkripzioa

- Zein zan sasoirik onena txendorra eitteko? Ala bardin zan?
- Txendorra eitteko izeten zan, ba, hemen neguen preparau, neguen preparau ta apirila inguruan, maio... hortxe.
- [Artua sartzeko] aurretik.
- Bai, hortara.
- Zeaittik zan sasoi hori ona?
- Zeaittik lana, bittartia harrapau bihar izeten zan, ba, basarrixan, ezta? Ta hor arbi bittarte hortan, bittarte hortan, orduen preparauta egon ezkeru, ba, haura ein.

10. Txondorra gabaz zaintzearen inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-088/014
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Gauez txondorrak ondo zaindu behar izaten ziren. Betegarria bota behar izaten zaio.

Transkripzioa

- Gero, bost txendor ez dia alkarren onduan egoten; bat han, bat han, beste bat han, hola. Gero gabaz [eitten] zan hori txarra. Han e... txendorrari ez da ipinttia bakarrik e! Gero betegarrixa sartu biher izeten jako ba. Lehen ez dot hori esan...
- Zer da betegarrixa?
- Bai ba, harek eskatu eingo dau, goittik behera zulua nola eukitzen daben. Ta bestela aldamenekua erretzen hasten da ta hara deskantsau dein erdiko zulora. Ta gero gabien, pare bat aldiz iguel, lehenengo lau bat egunien, ta gabien, e! Bueno...!
- Sua...
- Haura txarra, jun ta betegarrixa sartzia! Zaparradia igual galanta ta han parola, parola ipiñi hola, ertzien, ta eskillaria beheti gora ixotzeko. Parola ipiñi han ta haize pixka batek jotzen baeban goitti behera bueltaka igual parola. Bueno...! Horixe [txarra...]!
- Gogorra, ezta?
- Ni aprobauta nao ondo! Urte askuen gaiñera. Nik azkenengo Bergaran ein neban hori, Bergarako aiuntamentuan, ya tope orduantxe jo neban.

11. Egur-botatzearen inguruko kontuak

- **Erref:** BER-088/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:20:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Egur-botatzea. Triska, enborra garbitzea izaten zen. Egur-botatzearen inguruko kontuak. Lexikoa. Enborra zatitzea.

Transkripzioa

- Arbolak moztuari zelan esaten jako? Arbolak moztu, arbolak jo, bota, ebai...? Zelan esaten jako?
- Iñausi...?
- Iñausi? Arbola geiñeko zera...?
- Ez, ez. Honek esaten jok... ba, hi txarara hoianian, aizkoriakin bota "di-da!" "rrrraaaa"... aber ze esaten [jakon]...
- Ipurdittik botatze horri zelan.
- Ba! Guk egurra botatzia esaten [gontsan].
- Egur botatzia, ezta?
- Egur botatzia.
- Eta gaiñeko arramak eta? Horri?
- [txitxunketia].
- Zelan?
- Triskia.
- Zer da triskia?
- Egurra garbitzia, trongua garbitzia.
- Lehenengo botatzen dozu, ezta, illeria. Oseake, lehenengo bota eitten da ta laga eitten jako. Ta gero harek apainddu ein bihar. Apainketia, triskia. Apainddu. Ta gero haura ebai ta...
- Hori entzuteka najeuan berba hori ta. Guk soilddu esaten juau.
- Soilddu zuek.
- Zelan?
- Soilddu.
- Beste batzuk apainddu.
- Hamen triskia.
- Hamen triskia.
- Eta arbolak mozten zienian edo arbolak jotzen zienian edo, holan, beste baten kontra jausi barik geratzen zienian, horrek zutik geratzen zienian, tente... Horrek bazeuken...?
- Hori bota ein bihar orduan.
- Baiña horrek, izenik edo esaten zotsazuen zuek? Ez... Izen espezialik ez, ezta?
- "Bata bestian kontra geratu dok" eta gero... Haura txarra, e!
- Txarra hori! Edozeiñekin, piñuekin be bai e!
- Piñuekin be bai.
- Danian hori.
- Ta gero zelan botatzen zien horrek?
- Gero, bultza eindda ta gero [aldeti], aldameneti beste egurren batekin tira ein batera ta gero [...] eitten zan ba bestekaldera. Arte pixkatekin.
- Bestela zati bat ebaitta...
- Bai, bai. Hortara, hortara. Arte pixkatekin.

12. Txondor batek dituen zatiak

- **Erref:** BER-088/017
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:07. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Txondor zuloaren bueltan jartzen ziren egurrak. Lexikoa. Labur-labur txondorraren zatiak esaten ditu.

13. Ikazkinek egiten zituzten txabolak zelakoak izaten ziren

- **Erref:** BER-088/018
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:21:17. **Bukatu:** 00:24:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txabola zelakoa izaten zen. Gabaz txondorrea lan.

14. Txondor klase desberdinak

- **Erref:** BER-088/019
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:24:01. **Bukatu:** 00:26:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Zubi-txondorra. Pago-buruarekin egiten da; beste txondor klase bat da. Lan gogorragoa. Orain arte azaldutakoa txarako egurrekin egindakoa da. Bien arteko desberdintasunak. Burdin-ziria.

Transkripzioa

- Gero, egurrezko kuñarik edo burdiñazkorik edo erabiltzen zenden?
- Bueno, horrek dira subil-txendorrando.
- Zetako?
- Horrek dia beste... oin jardun doun hau da txarako egurrana. Ta oin, kuña ta horrek, zuk esan dozun horrek dia subil-txendorra. Beste bat da hori, beste klase bat. Badakit, ni be eindda nao, subil-txendorra. Hori izeten da, bueno, paga-buruek, paguek kendu edo gaztaiñak kendu igual, ta buruakin eitten dana, hori da subil-txendorra.
- Pago-burua zeri esaten dotsazue?
- Pagan gaiñeko zera, buru haura.
- Pagua, [zerrakua] kendu, ta gero geiñien burua eukitzen dau harek, sutarako bakarrik balixo dau edo txendorra, iketza eitteko. Harena diferentia da. Bueno, antzera, baiña lan gogogrraua. Bai, denpora gehixao biher izeten da, zeaitti egur haundixek [ipintten] dia.
- Zulo gehixao eingo jako gaiñera.
- Bai, egur haundixaua nola [ipintten] dan, ba... Bestela antzerakua. Oin, denboria gehixao bihar harek! Denboria gehixao bihar, zeaittik pago-buru

zaharrak han [ipintterakuan] alkarren pillan, bai, denporia asko biher izeten da. Bestela iguala.

- Eta orduan, zeuek erabili ein zenduezan iñoiz horrek kuñok edo, izenik edo bazeuken egurrezkue izen edo burdiñezkue izen edo? Zelakuak zien?
- Hori guk e, txarakotan ez zan biher izeten, baiña subil-txendarrantzat bai, zeaitti hari formia emoteko ta kuñakin preparau biher izeten zan. Kuñiakin preparau bihar gero txendorran formia emoteko, ez dakit ba...
- Horrek burdin-zirixa...
- Burdin-zirixa guk. Kuñia be [esaten gontsan], baiña burdin-zirixa.
- Euskeraz burdin-zirixa.
- A! Burdin-zirixa?
- Bai, burdin-zirixa.
- Eta danak zien burdiñezkuak ala egurrezkuak be bazaozen? Ala lehen ez?
- Bueno, burdiñezkua jeneralian ibiltzen zan, baiña gero beste batzuk, ezta? ba, haundixauak igual bihar izeten zien burdiñezkua baiño, ta gero, orduan, egurrezko haundixauak eitten zien ta harekin. [Ale!..., porriakin].
- Eta horrek zer zien egur-zirixak edo zer zien horrek? Kuñak?
- Bai, kuñak.
- Bai, burdiñazkua ein biharrian, ba, horrek esan dabena, zabaltzeko-ta haundixaua bihar zan, ba, noberak ein bertan ta gero kitto. Gero bota [haura] ta libre.
- Bueno, apurtu eitten zian...
- Bai, apurtu ta barrixa.

15. Ikatza garbitzearen inguruko kontuak

- **Erref:** BER-088/031
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:38:19. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza garbitzeko galbahea erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Eta lurra garbitzeko edo erabiltzen ziñuen, holan, zeozer, erraminttan bat edo?
- Bueno, erraminttia, gero izeten zan iketza garbitzeko galbahia. Galbahe haundi bat, holakua. Ta gero "rrra-rraa-rraa!" , harekin iketza ta gero, idurixa ta behera juten zan, ba, galbahetik, ta gero iketza geiñien geratzen zan. Ta gero handik hartu ta "rrak!" zakura.

16. Txondorak emandako ikatza zertarako erabiltzen zen

- **Erref:** BER-088/034
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:40:51. **Bukatu:** 00:41:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Ikatza ere ez zen dena berdina izaten; erabilera desberdina ematen zitzaion. Lexikoa.

Transkripzioa

- Ta iketz dana galbahetzen ziñuen?
- Dana. Galbahetu? Dan-dana.
- Horixe ez nekixan...
- Ta gero, batzuk eitteke geratzen zittuan, ez dok? Ta hari illinttia esaten jakok.
- Bai. Hori bajakixat.
- Erdi... erdi-iketza haura. Harek ya aparte. Harek etxien...
- Harek sukalderako edarra.
- Harek etxien sukalderako geratzen zien harek. Gero batzuten eitten zuan, asko samar erten ezkerro, ba, illintta-txendorra. Haura derrepente egosten zuan, e! Haura egun ta erdixen ya ixa eiñian egoten zan ba iketza. Haura ipiñi illintta-txendorra, ba, igual [batzuk] egoten zittuan [...] ta "rraat!" eta [...] Ona eitten eban iketza harek, e? [...] ixa eiñian egoten zan ta.

17. Txondorra garbitzea

- **Erref:** BER-088/035
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:41:32. **Bukatu:** 00:41:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Txondorra garbitzeko "itsuskia" erabiltzen zen.

Transkripzioa

- Gero, baldarra edo holakon bat...? Hor e... zera, lurreko zikin horrek kentzeko, holan, hiru makila dekozan zeozer edo... Ez?
- Txendorra lehen esan doun bezela garbitzeko jeneralien ibiltzen zan zera, itsuskixa bezalakua ostruakin.[Harek...] ta leun-leun einda lagatzen zan.

18. Txondorrek zenbat egur behar izaten zuen; zelan eramaten zen ikatz-tokirainok

- **Erref:** BER-088/037
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:42:53. **Bukatu:** 00:44:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorrera egurra lepoka eramaten zen gehienetan. 1.000 kg ikatz ateratzeko, 13 TN egur behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Ikaztokira egurra eruteko, bueno, bertara hurreratzeko, astorik edo erabiltzen zenduen? Astua ez, ezta? Ala? Behin edo behin erabili zenduen astorik?
- Bueno, leku on-ona egon ezker, ezta? Bidiakin edo, ezta? Ba, ganauekin be batzen zan pixkat, baiña jeneralian, aldapa beheria nola izeten dan, ba, lepoka ibiltzen zan.
- Lepoka... Normalian lepoka.
- Ta biher izeten dau iketza milla kilo etaratzeko hamabi-hamahiru tonelaje. Ondo ertenda hori, e? Mila kilo iketz etaratze ezker, hamahiru bat tonelada, hamahiru mila kilo egurra bihar. Hori ondo junda, e? Oin, pixkat erre, zulo haura haiziak zertzen badizu, ba, igual [hamabost bihar be]. Ba, horixe, tamaiño horixe izeten da. Hamabi tonelada, hamahiru. Mila kilo, mila ta ehun batekua [...] txendor txiki batek ta mila ta ehunekua etaratzeko hamahiru bat tonelada. Horretxek. Hori ondo junda, e? Oin, erre [ein jakola] ta, oin, baldin bada alper samarra baldin bada ta gabien lo eitten baldin badau ikezgilliek, erdixa igual erre! Bera lotan dauela.
- Gomezkortai erre jakuan oso-osorik txendorra!

19. Txondorreen sartzen zen egurra zelakoa izaten zen

- **Erref:** BER-088/038
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:44:13. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriri lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Egurra txikitzea zelan izaten zen. Txondorreen ipintzen ziren egur batzuen izenak. Lexikoa.

Transkripzioa

- Hori, eta aizkoriakin egurra ebateko ze ipintzen zenduen... nun jotzen zenduen? Egur, e...
- Egurra txikitze, holan...
- Egurra txikitzeo trangabela.
- Tranga...?
- Trangabela. Baiña hori txendor-zulora erun ta gero. Aurreti, aurreti bertan, dauen lekuan.
- Lurrian.
- Osea, bi metro ta erdiko hori ya lurrian eitten zan. Gero hara batu ta gero metroko hori ebaitzeo ta [... besteko]. Bateti besteko, ba, egur bat [...].
- Eta enborren bat erdittik jotzen zenduenian edo, hori zer zan? Erdittik...
- Pitzetzen? Pitzetu?
- Hori da...
- Bai, pitzetu. Egurrak pitzetzia.
- Zelan?
- Pitzetu.
- Bai, baiña...
- Ta zelan eitten zan?
- [...] ifiñi ta "glaaassk!" Ta bestela, ba, zerakin, haundixa baldin bazan,

ba, burdin-zirixa.

- Zelan?

- Burdin-zirixakin haundixa baldin bazan. Txiki samarra izen ezker, ba, goitti behera aizkora haundixauak [ipintzen] zien ta... Aizkora haundixakin.

- Pitzatu ta gero zer zien horrek, bringak edo? Ez... Edo zelan...?

- Bueno, hori bringetu, ba, gutxittan eitten zan zerien.

- Zer da hori, bringatu?

- Pitzetu.

- Apurtu.

- Berdin da, ezta?

- Bai, pitzatu ta bringatu ta...

- Zuk pitzatu esaten dozu...

- Bai. Bringatu ta pitzatu berdin da.

- Berdin da...

- Ta bringia da zera, han geratzen dan zatixa bringia da gero.

- Bai, bringia. Hori konparaziño baterako, hau, ezta? Ba, hamen burdin-zirixa sartzen dozu, ezta? "Dast!" bi aldetara. Hori [izeten] da, ba, bringia. Bringatzia.

- Gero hor, egur txikitxuak ze izen zeuken? Azkenian jartzen ziran arakixak edo...

- A, bueno, arakixa izeten zan azkenian, formia etartzeko, ezta? Ba, txikin-txikiñek hola ipintzen [mehe-mehenak]. Gero orbela gutxiao hartzen eben, ba, harek haura bueltia ondo hartu ezker. Ta gero ahal dan zerena, ipiñi ta gero orbela. Bestela zulo haundixak han laga ezker hamendik hona, orbela barrura sartzen zan ba, ta ahal dan gutxien barrura [sartuta ipiñi].

- Eta ezpalak? Ezpalak zer zien?

- Erabiltzen zien zeozetarako?

- Ezpalak? Ezpala, hola, mehia izeten da. Osea, aizkoriakin... hau da aizkoria, zera, ezta? Gero ertzetatik kentzen dozu ba pusketa mehiek?

- Bai...

- Ezpalak harek.

- Ta horrekin, zeoze eitten zenduen ezpalekin?

- Keba!

- Bazkarixa gertau ta...

- Bai, hortaraxe.

- Bazkarixa gertatzeko sua eitteko balio eben?

- Txabolan sua piztu!

- Bai?

- [Hartarakotxekon] bakarrik.

- Eta egur xehia edo zuk zeozeri esaten dotsazu? Egur xehia edo holako... Zer da?

- Egur xehia, ba...

- Betegarrixa esango giñuan hori, betegarrixa.

- Ekonomikara sartzen dira, ba, zerak? Ba, egur xehia hori izeten zan, betegarritarako goitti behera sartzeko.

- Eta bihurrixa?

- Egur bihurrixa, horixe txarra! [Haura zuzendu ein bihar izeten dau!] Hola, okerra baldin bada egurra erdixan ebaitta zuzentzen da, e! Konparaziño, hau baldin bada egurra okerra, han zuzena biher izeten dau, zerien, txendorrien ipintze ezker, bestela ezin zeiken formarik etara! Egurra holakua baldin bada, hemen ebaitzen dozu, ta zuzendu eitten da.

20. Ikazkintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-088/041

- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:51:36. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Nola jakiten zen ikatza eginda zegoela.

Transkripzioa

- Eta zelan zekitzuen iketza einda zauala?
- Barreneraiño allegatzen danian...
- Zer allegau?
- Biguntzen, bajatzen, bajatzen [jungo da haura], bajatzen, bajatzen, bajatzen... Ta gero barreneraiño allegatzen danian, hemendik keia hasten jako. Gero barrena... orduan, ba, barreneraiño allegauta dao. Ta gero geratzen da, ba, gorri-gorri ya dana egosittakuen.

21. Ikazkintzan erabiltzen ziren tresna batzuk

- **Erref:** BER-088/043
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza ateratzeko erabiltzen ziren tresnak. Bi hortzekoa.

Transkripzioa

- Eta iketza ateratzeko hortz-bakarra edo erabiltzen zenduen?
- Bi hortzekua jeneralian. Lodixek, e! Hola, lodi-lodixek. Bi hortzekua.
- Eta gantxun bat erabiltzen ziñuen...?
- Ez, bi hortzekuakin bakarrik. "Ra-ra-ra" barrenetik hasten da. Etaratzen barrenetik hasten da, e! Oseake, hemen goixen dana eindda [egon...] hemen barrenetik bueltan hasten [da txendorra etaratzen]. Iketza etaratzen barrenetik.
- Ez jaok gurien, e. Txikixa dok ikezgintzarako hori. [...]
- Ba, [badakixe hori] gutxi gorabehera. Egurrezkua izetia, zumintzekua izetia.
- Bai, haundixaua haura.
- Egurrezkua hau hobia, e...
- Bai, bai.
- Baiña hau txikixaua e, egurra, dana egurra dana.
- Nunbaitten baeuan, baiña erre ein genduan baiña. Erre edo desaparezidu [gurien ein zan].
- Bai, horixe.

22. Ikatza egiteko erabiltzen zen arropa

- **Erref:** BER-088/044
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:53:23. **Bukatu:** 00:53:57

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza garbitzeko orduan janzten ziren zapatak (azpitik iltzeak zituzten).

Transkripzioa

- Eta egurrezko zapatarik edo erabiltzen zenduen abarken gaiñetik?
- [Botsein] zaharrak.
- Zertzuk?
- [Botseiñak], zererako, osea, iketza garbitzerako, bestela abarkak su hartzen eben ba! Ta gero, orduan, [botsein] zahar haundi batzuk ibiltzen zien.
- Ta zer zien horrek?
- Borceguíes...
- [Borsein] zaharrak, [bost zerekuak].
- Bota zaharrak...
- Zapatak, azpittik ultziak daukazenak. Lehenao horrek ibiltzen zien.
- Honen tipokuak zaharrauak izetia, zaharrenak. Haura gero barrura sartu ezker... beruek egoten zien harek. Deskuidau ezker erre [ere ein] hankia. Iñoiz tokau jata neri [...zulo edarrak] etaratzia.

23. Ikatzaren salmenta

- **Erref:** BER-088/045
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:53:57. **Bukatu:** 00:54:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza zakuka saltzen zen.

Transkripzioa

- Lehen esan dozu zakueta sartzen zenduela gero iketza, ezta? Zaku normalak zien?
- Bueno, orduen zakuek hogeita bana kilo ingurukuek, ezta? Ta gero hasi zan, ba, orduen zakuka saltzen zan.
- Zakuko?
- Bai. Lehen esan dot ba hamar errielian ta gero hamaikara ixo ebala? Orduen zakuka. Ta gero hasi zan kiloka.
- Kiloka.
- Gero kiloka hasi zan. Pezetia kilua eitten hasi zanian, bueno, aberastuta genden. Berrogeta hamar, berrogei kilo inguruko zaku haundixa, ezta? ta berrogei pezeta. Bueno...!
- Eta zakuak beti honen modukuak. Narruzkorik eta holakorik ezautu dozu?
- Ez, ez, ez.
- Ez, ezta? Holakorik ez.
- Iketz-zakuek esaten jakon [...] horrerri txiki horrerri, iketz-zakuek.

24. Txondorretik ateratzen zen ikatz kopurua; neurtzeko zer erabiltzen zen

- **Erref:** BER-088/046
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:55:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza neurtzeko erabiltzen zirenak. Txondorrak zenbat ikatz emango zuen zelan zekiten. Non saltzen zuten.

25. Ikatza saltzeko egin behar ziren prestaketa lanak

- **Erref:** BER-088/047
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:55:57. **Bukatu:** 00:58:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatz-txapa zakuetan ipintzen zen. Ikatz-zakuak zelan prestatzen ziren. Gurdian eramaten zituzten ikatz-zakuak. Zenbatera saltzen zuten ikatza.

Transkripzioa

- ... izena txapiak, zakuan gaiñekua, txapia esaten [...]
- Bai, iketz-txapia.
- Zer da hori?
- Lehen esan dotzut ba, zakua egurrezko saria gaiñian zeukela... iketz-txapia esaten jako horri.
- Hori, puntia estutu, lotu barik, ha ipiñi ta bueltan josi hari.
- Gero zakuek [egoten] zien, zakuek preparauta egoten zien.
- Ta zerekin josi?
- Abar [batzukin], harin batekin, hilobaliakin edo...
- Ez, ez, ez. Zakuak eukitzen zittuen geiñien, bueno, hau da zera, ezta? Gero, hemen bueltan zer txiki batzuk holan ipiñitta. E? Ta hemen, hemen txapia. Ta gero, hemendik hona hilobaliakin "ra-ra-ra-ra-ra", "da!" derrepente preparatzen da. Harek, hau eindda egon ezkerro, ba, zakua [kargauta dao].
- A! Hilobalia erabiltzen zenduen...
- Ta bestela erabili bihar izeten giñuan, ba, garua edo, ez dakit nik. Hori egon ezien, ba, garua erabili biher geiñera tapatzeko. Bestela garua. Ta hau egon ezkerro, ba, hau ipiñi txapia, geiñian, ezta, zakuari, "dast!" ta zakuan geiñian ipiñi ta "ra-ra-ra!" bueltan ta "da!" estutzen zan ta lotu ta kitto. Momentuen eitten [da].
- Zeuek eruaten zenduen iketza ala billa etortzen zien?
- Ez, ez, ez. Guk ganauekin kalera.
- Ganauekin?
- Burdixan edo?
- Burdixan.

- Zelakuak zien orduan burdixak?
- Bueno, burdi... zerak, burdi-zorrotzak esaten jaten.
- Txirringadunak.
- Txirringa...
- Ez dozue ezautu hori?
- Zein da txirringa zeukana?
- Burdiñazko erruberak [...]
- Baiña honek ez zaben ezautuko [...]
- Bai, honek etxetara [bai], honek etxetara, honek ez dia faten mandixora ta ez dia faten honek. Bildurtu eitten dia.
- Lehen esan dozu, ze preziotan saltzen ziñuen?
- Ba, orduen, zaku lehen esan doten hori hamar erriel. Ta gero, esan dot ba Bergarako kondiek hamaika erriera bajau ein eban. Bajau ez! Berantzat karuei ei zan.
- Ta hori ze urtetan zan gutxi gorabehera?
- Hori gerratia pasata, gerratia pasa ezkeru.
- Cuarenta-tik cinco bittarte, hortxe.

26. Ikatzaren erabilera desberdinak

- **Erref:** BER-088/048
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:58:08. **Bukatu:** 00:59:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza zertarako erabiltzen zen. Errementariak nahiago izaten zuten gaztaina-ikatz.

Transkripzioa

- Zetako erabiltzen zan ikatza orduan sasoi hartan? Zetako eruaten zan ikatza? Nora?
- Ikatza kalien?
- Bai.
- Kalien andrak egunero zertzen eben. Ekonomikarako edo bestela estufarako edo...
- Ta bestela fabriketarako eta?
- Bestela taillarretara be bai.
- Taillarretan...
- Taillarretan? Hamen Plazentzian ta iketza asko [pasatzen] zan. Taillarretan gero jenerala.
- Eta errementarixentzako edo?
- Baitta. Errementarixek nahixao izeten eben gaztaiñiana.
- Zeaittik?
- Tenplerako, ba, zeraua, bestela pasatzen zan...
- Motelaua dalako.
- Ta pasatzen dana zan hau, paguana, han zerien ebaitzen ebenien, haura segi ta segi eitten eban ta gero haura erre eitten [jat han]. Konparaziño bota bost killo edo, zera, ezta? Ta haura erre eitten zan. Ta gaztaiñiana emendau eitten zuan. Emendau ta gero orduan, ba...
- Han geratzen zan ha geroko.

- Baiña Uberako errementarixak gero [ezautuko eban] hamen iketza, e!
- Gaztaiñiakin ta geuk ezin [gebelako]. Ezin billau. Gastau ein zittuan ta!
- Eta zeñek eitten eban orduan gaztaiñiakin iketza?
- Bai, eitten zan, bai. Gaztaiñadixak eren orduan ta.
- Baiña asko ez...
- Asko ez.
- Baiña zeuk ein zendun iñoiz gaztaiñiakin?
- Baten nao eindda [Urbason]. Aguro eitten da. Gaztaiña derrepente eitten da! Txendorra haundixa izen arren, lau egunerako ya ja-ta "bluuuu" [bajutzen] da. Oin, ariña izeten da haura, e! Honek killoka saltzeko, ba, [ezebez]...
- Piñuak eingo leukek iketzik? Horrek be ariña eingo leukek ba.
- Zihero eskasa.
- Horrekin? Piñua [...] su emon ezkerro erre.

27. Zuhaitz-botatzearen inguruko azalpenak

- **Erref:** BER-088/049
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:59:52. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Zuhaitzak noiz botatzen ziren.

Transkripzioa

- Eta arbolak lehen, hori, arbolak botatzia noiz eitten zan? Sasoi espezialen bat hartzen zan ala...? Ilgora, Ilbehera...
- Bueno, jeneralien neguan, neguan hemen. Ez jakon beitzen orduen.
- Ilargixari-ta ez jakon begiratzen?
- Ez.
- Berdin zan orduan, ezta?
- Bai. [Iketzerako ya...] Inportantzia eukiko eban, baiña orduan ez jakon beitzen.

28. Ikazkintza eta sinesmenak

- **Erref:** BER-089/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Txondorrek zenbat denbora behar izaten zuen erretzeko. Bitartean, mezara joateko denbora ere izaten zuten. Txondorra ondo irten zedin, gurutze bat ipintzen zitzaion.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com